

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak arrakasta izan dezan **funtsezkoak** diren **baliabideak** honako hauek dira:

Lehenik eta behin, **baliabide fisikoen** aldetik, bilerak eta lanak egin ahal izateko, lokal bat izango dugu, eta, bertan enpresa osatzen dugun kideak elkartuko gara. Lokal horretan, enpresako kideak lana aurrera ateratzeko hainbat baliabide edukiko ditugu, esaterako, ordenagailuak, pultserak, dokumentuak, estudioa...

Baliabide intelektualen aldetik berriz, gure kideen teknologiari buruzko jakinduria kontuan hartuko dugu, hainbat profesionalen laguntza ere edukiko dugu eskuragarri eta beste laguntza bat jasoko dugu pultserak diseinatzen dakien profesional batengandik.

Giza baliabideak ere funtsezkoak dira gure proiektua aurrera eramateko eta taldeko kide bakoitzak bere funtzioa izango du:

❖ Eyerus Gomez:

→ Publizitatea eta marketinean ondo moldatzen da eta beste erakunde publikoekin harremanetan jartzeko gai da.

❖ Maria Paula García:

→ Webgunea diseinatzen aurreratua da. Pultseraren berrikuntzak haren esku egongo dira, azken berrikuntzak iragarkiz.

❖ Irene Gaztañaga:

→ Teknologian taldeko espezializatuena da eta haren jakinduriaren bidez webgune bat sortuko du non bezeroak arreta osoa izango duen.

❖ Ramón Gallardo:

→ Teknologiaren munduan ere jakinduria handia du eta horren bidez aplikazioan sor daitezken arazo teknologiko gehienak konpontzeko gai izango da.

❖ Maidier Loretegi:

→ Teknologia erabili eta ulertzeko erraztasuna handia du eta hau gutxi balitz, ekonomiaren arloa menperatzen du.

Azkenik **finantza baliabideen** kasuan hainbat aurrezki ditugu gure proiektua aurrera atera ahal izateko.

Azoka solidario bat egingo genuke, gure bigarren eskuko hainbat babes objektu salduz, hala nola, seguritate kamerak eta bertan lortzen dugun dirua proiektuan inbertituko genuke. Elkarte batzuk diru jakin bat emango digute laguntza bezala gure proiektua aurrera ateratzeko eta errazagoa izateko, esaterako Ordiziako Babes Elkartek diru kopuru jakin bat emango digu gure proiektua aurrera ateratzeko.

Gure lana arrakastatsua izateko hainbat pertsona famatuk gure produktua publizitatuko dute, beraz jendeak ikusi egingo du eta jende gehiagok edukiz diru gehiago lortu dezakegu. Beste alde batetik promozio kanpainak egingo ditugu erabiltzaileen laguntzaz eta trukean erabiltzaileei premium baliabideak emango zaizkie guri laguntzeagatik. Gainera lehen 500 erabiltzaileek 3 hilabetez premium aukerak eskuragarri edukiko dituzte doan eta hori gantxo ezin hobe izango da bezeroek aurrerago ordaintzen jarraitzeko.



